Zerbitzuen Sektoreko Jardueraren Adierazlea (Oinarria: 2021)
2026ko iraila. Behin-behineko datuak

Irailean, zerbitzuen sektoreko negozio-zifra % 10,7 igo da urtetik urtera, eta % 13,6 aurreko hilabetearekin alderatuta

2026ko azaroaren 20a

"Jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak" adarrak izan du negozio-zifraren igoerarik handiena, urte arteko tasan % 22,7koa

NEGOZIO-ZIFRA

Guztira. 2026ko irailean, Merkatuko Zerbitzuen Sektoreko negozio-zifra % 10,7 igo da Nafarroan, termino arruntetan, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta.

Urte arteko bilakaera, sektorearen arabera. Bi talde handietatik, *Merkataritza* % 11,9 igo da, eta *Bestelako zerbitzuak*, berriz, % 7,7. Azken talde horren barruan, honako adar hauetan igo da negozio-zifra: *Ostalaritza* (% 0,3)*, Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak* (% 1,6)*, Garraioa eta biltegiratzea* (% 10,3) eta *Jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak* (% 22,7)*. Informazioa eta komunikazioak* adarrean, berriz, jaitsi egin da (–% 10,7).

Hileko bilakaera, sektorearen arabera. Negozio-zifrak % 13,6ko igoera izan du aurreko hilabetearekin alderatuta. Bi talde handietatik, *Merkataritza* % 12,5 igo da, eta *Bestelako zerbitzuak*, berriz, % 16,8. Azken talde horren barruan, adar guztietan igo da negozio-zifra: *Ostalaritza* (% 0,1)*, Jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak* (% 13,6)*, Garraioa eta biltegiratzea* (% 18,3)*, Informazioa eta komunikazioak* (% 21,8) eta *Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak* (% 41,9).

Espainia. Zerbitzuen sektorearen urteko tasa % 8,5ekoa izan da.

CONTACTO | HARREMANETARAKO
estadistica@navarra.es
848 42 34 00

1. TAULA


Negozio-zifraren indizea: orokorra eta sektoreka. Jatorrizko seriea. 2026ko iraila.

	NAFARROA				ESPAINIA			
	Indizea	Tasa (%)			Indizea	Tasa (%)		
		Hilekoa	Urtekoa	Batezbest ekoa, urte hasieratik		Hilekoa	Urtekoa	Batezbest ekoa, urte hasieratik
1 Merkataritza	***153,9***	***12,5***	***11,9***	***8,1***	***141,8***	***18,0***	***10,8***	***6,5***
2 Bestelako zerbitzuak	***141,5***	***16,8***	***7,7***	***2,7***	***148,9***	***9,2***	***4,6***	***4,7***
2.1 Garraioa eta biltegiratzea	*145,0*	*18,3*	*10,3*	*11,3*	*153,0*	*9,7*	*10,9*	*7,3*
2.2 Ostalaritza	*178,6*	*0,1*	*0,3*	*1,9*	*192,5*	*-14,1*	*2,9*	*2,3*
2.3 Informazioa eta komunikazioak	*102,0*	*21,8*	*-10,7*	*-0,8*	*128,5*	*22,2*	*2,8*	*4,3*
2.4 Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak	*120,3*	*41,9*	*1,6*	*-14,4*	*130,2*	*33,1*	*1,0*	*3,6*
2.5 Jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak	*170,1*	*13,6*	*22,7*	*18,4*	*181,1*	*7,5*	*4,0*	*5,2*
INDIZE OROKORRA	***150,3***	***13,6***	***10,7***	***6,6***	***144,4***	***14,7***	***8,5***	***5,9***

Iturria: Geuk egina, INEk emandako datuetan oinarrituta.
Behin-behineko datuak

1. GRAFIKOA

Zerbitzuen Sektoreko Jardueraren urte arteko aldakuntza



Iturria: Geuk egina, INEk emandako datuetan oinarrituta.

CONTACTO | HARREMANETARAKO
estadistica@navarra.es
848 42 34 00

OKUPAZIOA

Guztira eta sektoreka. Irailean, zerbitzuen sektoreko enpleguak urtetik urterako % 0,3ko igoera izan du. Jarduera-adarren arabera, Nafarroan enplegua % 1,3 igo da *Merkataritza* adarrean, eta % 0,2 jaitsi da *Bestelako zerbitzuak* adarrean.

Espainia. Zerbitzuen sektoreko enplegua % 1,3 igo da irailean, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta.

2. TAULA

Okupazio-indizea: orokorra eta sektoreka. 2026ko iraila.

	NAFARROA				ESPAINIA			
	Indizea	Tasa (%)			Indizea	Tasa (%)		
		Hilekoa	Urtekoa	Batezbesteko a, urte hasieratik		Hilekoa	Urtekoa	Batezbesteko a, urte hasieratik
1 Merkataritza	***111,3***	***-1,0***	***1,3***	***1,2***	***107,8***	***-0,6***	***1,4***	***1,0***
2 Bestelako zerbitzuak	***110,3***	***1,3***	***-0,2***	***0,8***	***114,2***	***1,5***	***1,3***	***1,4***
2.1 Garraioa eta biltegiratzea	*110,7*	*0,7*	*-1,2*	*0,2*	*112,5*	*0,5*	*1,9*	*1,7*
2.2 Ostalaritza	*110,1*	*0,8*	*-5,9*	*-3,3*	*122,5*	*1,9*	*0,7*	*0,8*
2.3 Informazioa eta komunikazioak	*105,4*	*-0,8*	*-0,9*	*0,0*	*113,4*	*0,8*	*0,5*	*1,0*
2.4 Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak	*110,1*	*1,0*	*-1,0*	*-1,0*	*109,0*	*0,5*	*0,2*	*0,8*
2.5 Jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak	*111,9*	*3,4*	*7,3*	*6,7*	*113,3*	*2,7*	*2,7*	*2,5*
INDIZE OROKORRA	***110,7***	***0,4***	***0,3***	***1,0***	***112,0***	***0,7***	***1,3***	***1,3***

Iturria: Geuk egina, INEk emandako datuetan oinarrituta.
Behin-behineko datuak

CONTACTO | HARREMANETARAKO
estadistica@navarra.es
848 42 34 00

OHAR METODOLOGIKOA

Zerbitzuen Sektoreko Jardueraren Adierazleek (ZSJA) merkatuko zerbitzu ez-finantzarioetako enpresen jardueraren epe laburreko bilakaera neurtzen dute, bi aldagairen bidez: negozio-zifra eta langile okupatuak. Negozio-zifrak zerbitzuak emateagatik eta ondasunak saltzeagatik enpresak fakturatutako zenbatekoak barne hartzen ditu. Langile okupatuen artean sartzen dira bai soldatapekoak, bai ordaindu gabeak.

Datu horiek lortzeko, Espainia osoan sektore horretan diharduten 27.500 enpresa baino gehiago hilero ikertzen dituen etengabeko inkesta bat egiten da. Emaitzak indize moduan aurkezten dira, 2021eko oinarri-urtearekiko aldaketak neurtzeko helburuarekin.

Horrela, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Europako enpresa-estatistikei buruzko 2019/2152 (EB) Erregelamenduaren arabera zehaztapen teknikoak eta modalitateak ezartzen dituen Batzordearen 2020/1197 (EB) Betearazpen Erregelamendua betetzen da.

Estatistikako Institutu Nazionalak egindako estatistika-eragiketa da, eta ezaugarri nagusi hauek ditu:

- **Inkesta mota:** jarraitua, hilero egiten da.
- **Oinarrizko aldia:** 2021.
- **Biztanle-esparrua:** Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionaleko (JESN-09) G (Merkataritza), H (Garraioa eta Biltegiratzea), I (Ostalaritza), J (Informazioa eta Komunikazioak), M (Jarduera Profesional, Zientifiko eta Teknikoak) eta N (Jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak) ataletan jarduera nagusia deskribatzen deneko enpresak.
- **Esparru geografikoa:** lurralde nazional osoa, Ceuta eta Melilla izan ezik, horientzat JESN-09aren 47. dibisioan bakarrik jasotzen baita (txikizkako merkataritza).
- **Laginketa mota:**
  ausazko laginketa estratifikatua.
- **Biltzeko metodoa:** informatzaileak galdetegia betetzea, bide hauetakoren bat erabiliz: Internet (IRIA sistema), posta elektronikoa, faxa, telefonoa edo posta.

Informazio gehiago nahi izanez gero, Estatistikako Institutu Nazionalaren webgunean kontsultatu daiteke adierazle honetarako metodologia.

INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

Zerbitzuen Sektoreko Jardueraren Adierazlea. 2026ko iraila.

CONTACTO | HARREMANETARAKO
estadistica@navarra.es
848 42 34 00